

BESTELAKO XEDAPENAK

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

2138

EBAZPENA, 2022ko maiatzaren 2koa, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren zuzendariarena, 2021eko ekainaren 14ko Ebazpena aldatzen duena. Azken ebazpen horren bidez, dirulaguntzak eman zaizkie kontsumitzaileen elkarteei, funtzionamenduko eta laguntza juridikoko gastuak ordain ditzaten 2021eko ekitaldian.

Kontsumobideko zuzendariaren 2020ko abenduaren 9ko Ebazpenaren bidez argitara ematen da kontsumitzaileen erakundeek 2021eko ekitaldian funtzionamenduko eta laguntza juridikoko gastuak ordaintzera bideratutako dirulaguntzen deialdia.

2020ko abenduaren 9ko Ebazpenean ezarritako epealdian, ebazpen horri heltzeko laguntza-eskabideak jaso ziren Kontsumobiden. Izan ere, behean zehazten dira laguntza-eskabideak aurkeztu zituzten erakundeak eta eskatutako zenbatekoak:

	1. lerroa:Funtzionamenduko gastuak	2. lerroa:Laguntza juridikoa
EKE - Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoa.	111.000,00 €	15.000,00 €
EHKB - Euskal Herriko Kontsumitzaileen Batasuna	153.502,27 €	61.940,00 €
EKA - Euskal Kontsumitzaileen Alkartea.	102.000,00 €	92.000,00 €
FACUA - Consumidores en Acción.	16.800,00 €	0.00 €
ACUBI - Asociación de Consumidores y Usuarios del Bidasoa.	20.000,00 €	500,00 €

Kontsumobideko zuzendariaren 2021eko ekainaren 14ko Ebazpenaren bidez, honako dirulaguntza hauek eman ziren:

EKE - Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoa.

	Guztira	2021eko aurrekontua	2022ko aurrekontua
1. lerroa: Kontsumitzaileentzako arreta.	59.032,80 €	44.274,60 €	14.758,20 €
2. lerroa: Laguntza juridikoa.	9.600,00 €	7.200,00 €	2.400,00 €
Guztira.	68.632,80 €	51.474,60 €	17.158,20 €

EHKB - Euskal Herriko Kontsumitzaileen Batasuna.

	Guztira	2021eko aurrekontua	2022ko aurrekontua
1. lerroa: Kontsumitzaileentzako arreta.	100.448,00 €	75.336,00 €	25.112,00 €
2. lerroa: Laguntza juridikoa.	49.552,00 €	37.164,00 €	12.388,00 €
Guztira.	150.000,00 €	112.500,00 €	37.500,00 €

EKA - Euskal Kontsumitzaileen Elkartea.

	Guztira	2021eko aurrekontua	2022ko aurrekontua
1. lerroa: Kontsumitzaileentzako arreta.	102.000,00 €	76.500,00 €	25.500,00 €
2. lerroa: Laguntza juridikoa.	92.000,00 €	69.000,00 €	23.000,00 €
Guztira.	194.000,00 €	145.500,00 €	48.500,00 €

ACUBI - Bidasoako Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Elkartea.

	Guztira	2021eko aurrekontua	2022ko aurrekontua
1. lerroa: Kontsumitzaileentzako arreta.	9.251,40 €	6.938,55 €	2.312,85 €
2. lerroa: Laguntza juridikoa.	275,00 €	206,25 €	68,75 €
Guztira.	9.526,40 €	7.144,80 €	2.381,60 €

FACU Euskadi - Asociación de Consumidores y Usuarios en Acción

1. lerroa: Kontsumitzaileentzako arreta.	0,00 €
2. lerroa: Laguntza juridikoa.	0,00 €
Guztira.	0,00 €

2020ko abenduaren 9ko Ebazpenaren 16. artikularen arabera, aldeko ebazpena eman zen unean ordaindu zen dirulaguntzaren % 75a, eta gainerako % 25a gastuaren justifikazioaren zain geratu zen.

Erakunde onuradunek emandako dirulaguntzaren justifikazioa aurkeztu dute, eta honako desbideratze hauek gertatu dira justifikazioaren eta dirulaguntza kalkulatzeko onartutako aurrekontuaren artean.

EHKB - Euskal Herriko Kontsumitzaileen Batasuna.

	Onartutako aurrekontua	Justifikazioa	Desbideratzea
1. lerroa: Kontsumitzaileentzako arreta.	191.461,27 €	137.436,55 €	% 28,22.

EKE - Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoa.

	Onartutako aurrekontua.	Justifikazioa	Desbideratzea
1. lerroa: Kontsumitzaileentzako arreta.	111.000,00 €	76.944,34 €	% 28,76.
2. lerroa: Laguntza juridikoa.	15.000,00 €	10.000,00 €	% 33,33.

2020ko abenduaren 9ko Ebazpenak, 17. artikulua 3. zenbakian ezartzen duenaren arabera, gastuen justifikazioan % 8tik gorako eta % 25eko edo hortik beherako desbideratzea gertatzen bada, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da eta, horretarako, aldaketa-ebazpena emango da; horrela, benetan gastatutako zenbatekoari dirulaguntza kalkulatzeko aurrekontuan jasotako zenbatekoari aplikatu zitzaion ehuneko bera aplikatuko zaio.

Era berean, 4. puntuan ezartzen denez, gastuen justifikazioan % 25etik gorako desbideratzea gertatzen bada, dirulaguntzarako eskubidea galduko da, laguntza ekonomikoa emateko arrazoi izan ziren helburu guztiak bete direla justifikatzen denean izan ezik. Kasu horretan, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa gutxituko da; horrela, benetan gastatutako zenbatekoari dirulaguntza kalkulatzeko aurrekontuan jasotako zenbatekoari aplikatu zitzaion ehuneko bera aplikatuko zaio.

EHKB - Euskal Herriko Kontsumitzaileen Batasunak eta EKE - Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoak bete dituzte dirulaguntza emateko xede ziren helburuak.

Aipatutako lege-aginduak eta oro har eta bereziki aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuko zuzendariak honako hau

XEDATZEN DU:

1.– Aldatzea EHKB - Euskal Herriko Kontsumitzaileen Batasunari eta EKE - Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoari 2021eko ekainaren 14ko Ebazpenaren bidez emandako zenbatekoak. Hona hemen kontzeptuak eta zenbatekoak:

EHKB - Euskal Herriko Kontsumitzaileen Batasuna.

	Dirulaguntza
1. lerroa: Kontsumitzaileentzako arreta.	72.104,54 €

EKE - Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoa.

	Dirulaguntza
1. lerroa: Kontsumitzaileentzako arreta.	42.057,78 €
2. lerroa: Laguntza juridikoa.	6.400,00 €

2022ko maiatzaren 19a, osteguna

2.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari; beraz, horren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

3.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 2a.

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren zuzendaria,
LAURA ANGELA ALZOLA KIRSCHGENS.